

# Noaia !!



Hurbilago txartelarekin,  
beherapenak eta opariak



Mendeku Itxua, "Piztien pare"

Kalitatezko produktuekin estilismoa eta estetika lantzen ditugu





Goldensys  
THE MICROPIGMENTATION EXPERTS

# MIKROPIGMENTAZIOA

IRUDI EZIN HOBEA LORTZEKO  
EGUN GUZTIETAN  
EGUN GUZTIAN ZEHAR

## ZER DA?

Mikropigmentazioa espezialitate estetiko bat da, azalean ematen den minarik gabeko pigmentazio-ziztada batean oinarritzen dena. Helburua ia betirako ezpainak, bekainak eta betazalak zuzentzea, dotoretzea eta orekatzea da; emaitza naturala eta gainontzekoentzat ia ikusezina izango da.



Abenduaren 1ean, asteazkena  
**MIKROPIGMENTAZIOAREN ERAKUSTALDIA**  
(ATEAK ZABALIK)



Azterketa eta bisagismoa DOAN (mikropigmentazioarekin izango zenituzkeen emaitzen froga)

Nagusia 8, USURBIL 943 36 36 41 (egun guztia irekia)

**TAXI 24h**

607 92 87 70 Angel  
943 00 44 83  
8322 GXX  
USURBIL

**ZU zara berria**  
euskarazko komunikabideak,  
elkarlanean, bertuta, mugimenduan

**hitza** info  
**berria** info

Gure produktuak gertutik ezagutu nahi badituzu edo harpidetu nahi baduzu:  
[www.zuzaraberria.info](http://www.zuzaraberria.info) [berrietan\\_info](mailto:berrietan_info)

## Albisteak iruditan!!

# Sari gehiago judo taldeko kideentzat

**G**aztela eta Leongo Nazioarteko Judo Txapelketan, emaitza onak eskuratu zituen Euskadiko selekzioak. Han izan ziren Usurbil Judo Taldeko hainbat ordezkari.

-66 kg kategorian, Daoud Douak zilarrezko domina eskuratu zuen.

-100 kg kategorian, Egoitz Morak zilarrezkoa irabazi zuen eta, -73 kg mailan, Aitzol Arrospiderentzat izan zen brontzezkoa.

Espainiako Kadete Txapelketa ere jokatu zen pasa den asteburuan Hondarribian. Beñat Aburuzak urrezko domina eskuratu zuen -81 kg kategorian. Xabier Cazorlak ere, baina -66 kg kategorian, zilarrezkoa erdietsi zuen.

Naroa Sanchez, Odei Agoñes eta Nestor Laca ere Hondarribiko txapelketan izan ziren.



ARGAZKIAN, DAUDOU DOUA, EGOITZ MORA ETA AITZOL ARROSPIDE; GAZTELA ETA LEONGO TXAPELKETAN IRABAZITAKO SARIK ESQUETAN.

## Noaua!!

NOAUA! Kultur Elkartea Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil  
Telefono zenbakia: 943 36 03 21

E-posta: [elkartea@noaua.com](mailto:elkartea@noaua.com)

[www.noaua.com](http://www.noaua.com)

Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua, [elkartea@noaua.com](mailto:elkartea@noaua.com)

Aldizkari koordinatzailea: Imanol Ubeda, [erredakzioa@noaua.com](mailto:erredakzioa@noaua.com)

Idazkaria: Alaitz Aizpurua, [elkartea@noaua.com](mailto:elkartea@noaua.com)

Publizitatea: Bea Alda, [publizitatea@noaua.com](mailto:publizitatea@noaua.com)

Laguntzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzisidor, Maria Angeles Arruti, Ainara Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria Jesus Urbiet, Begoña Rekondo, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Irati Portu, Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon Etxabe, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Denis Elortza, Pello Aranburu, Maider Makazaga, Inma Balda, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Maialen Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas, Unai Agirre, Idoia Torregarai, Belmonte Auzo Elkartea eta Udarregi ikastola.

Erredakzio kontseilua: Imanol Ubeda, Aritz Gorriti, Alaitz Aizpurua.

Banaketa: Lourdes Kamino, Olatz Rezola.

Tirada: 2.800 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

## Aurkibidea

702 SINADURA AURKEZTU DIRA \_\_\_\_\_ **5. OR.**

KRONISTAK KALEJIRAN \_\_\_\_\_ **6. OR.**

HURBILAGO TXARTELA AURKEZTU DUTE \_\_\_\_\_ **9. OR.**

OSTEGUNEAN, MUSIKALEAN KALEJIRA \_\_\_\_\_ **12. OR.**

YOLANDA ARRIETAREN SAIOA SUTEGIN \_\_\_\_\_ **13. OR.**



Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herrira!



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



**Kima**  
MASAJE LEKUA



Kirol masajea eta masaje terapeutikoa

Kale nagusia, 44- behea  
LASARTE-ORIA

TEL. 36 61 97

**TANTXETA**  
taberna-jatetxea  
ogitartekoak  
eguneroko menua  
plater kanbinatuak  
EGUZKITZA, 4 · 943 370 344

ZUBIAURRENEA 4 HUSBIL  
ileapaindegia  
mistoa  
943361951



MAIALEN UNANUE

## Derrigorrezkoa da oroitzea

Sekulako atsekabearekin irten nintzen pasa den ostiralean San Suteagiko aretotik. Hainbat emakumeren bizipenak ezagutu genituen "Debekatua dago oroitzea" dokumentalarekin. Saturrarango Kartzelan egon ziren emakumeak, bertan egon zirenean umeak zirenak eta kartzela hartako presoak laguntzen zietenak ziren filmaren protagonistak.

Alde batetik, poztu egin ninduen emakume haien kemeak, aurrera nola egin zuten amesgaizto hartan. Bestetik, amorratu egin ninduen hain triste eta gogorak izan ziren urte haietako bizipenak nola gorde behar izan dituzten euren barrenean jakiteak.

Emakume horiek lehenengo pertsonan bizi izan zuten tragedia hura, bertan preso izan zirelako edota euren ama bertan sartu zutelako; hunkigarriak ziren oso haien hitzak. Euren artean bazen emakume kataluniar bat bertan preso egon zena, gaizki oroitzen ez badut, bi urte eskas zituen bere alaba txikiarekin. Mojek haren hilkutxa zaintzera nola behartu zuten kontatzen zuen, nola frankistak eurak baino ankerragoak ziren moja haiek zaku bat eman zioten, gauean konturatu gabe lo geratzen bazen, atean jar zezan, azpiko zirrikitutik sartuko ziren arratoiek bere alabaren hilotza jan ez zezaten.

Mojak eurak frankistak baino okerragoak zirela diot, emakume horiek kontatzen zituzten istorioek hori pentsarazten zutelako. Igandero iristen omen zen janariz betetako kamioi

bat, frankistek gidatua. Behi erdiak nola ekartzen zituzten ikusten zuten bertan preso zeudenek, baina eurek ez zuten haragirik jan, mojek eurek jan edota azokan saltzen zuten; edo lehen aipatu dudan emakume kataluniar hark aipatu zuen moduan, egunero jaten zuten haragia, dilista ale bakoitzeko kalkula baitzitezkeen hiru zizare.

Beste emakume batzuek kontatzen zuten nola eurak txikiak zirela eskolatik etxerakoan ikusten zuten asto bat, gurdi batean gurutze beltzarekin kutxa handi eta txikiak zeramatzana. Saturrarango kartzelan egunero hiltzen zirenak garraiatzen zituzten bertan. Oraindik txikiak ziren neska haiek bazekiten hilkutxa txikiak umeenak zirela, ez zekitena zen hilkutxa nimitño haietan ez zela gorpu bakarra aurkitzen. Saturraranen preso egon zen emakume batek kontatu zuen nola askotan bi edota hiru umeren hilotzak batera sartzen zituzten kutxa ezdeus haietan, Ondarroako biztanleak gehiegi beldurtu ez zitezten.

Balio handiko lekukotza dokumental honek eskaintzen duena, gure historiaren atal ezezaguna, 70 urte inguru itzalpean egon dena orain arte. Istorio gehiago ere kontatzen ziren, hemen bildu ezin ditudanak, baina ez horregatik ahaztu beharrekoak. Ez dezagun ahaztu, gure historiaren parte den aldetik, gure kontzientzian bizirik egon behar duen zati lazarri, baina garrantzitsu hau: derrigortuta gaude oroitzera.

Nerea Zinkunegi - Maialen Unanue - Luis Aranalde - Imanol Ubeda - Aritz Gorriti - Ugaitz Agirre - Joxe Piñas - Unai Agirre - Idoia Torregarai

## Ezker abertzalea, Alternatiba eta Ezker Batuaren esanetan "Errauste plantaren aldeko interesak defendatzeko dago Mankomunitatea"

**G**obernu talde berriak kargua ghartu ondorengo lehen batzarra burutu berri du San Marko Mankomunitateak. Horren haritik, Ezker abertzaleak, Alternatibak eta Ezker Batuak batera kaleratu duten prentsa oharraren bidez, egungo Mankomunitateko gidariei, EAJ-PNV eta PSE-EE-ko ordezkariei, utzikeria eta ezgaitasuna egotzen diete.

Aurreko gobernu taldeko idazkaria eta kontu hartzailea kargutik kendu eta hila-betera, diotenez "(Juan Carlos Merino) ez da gai izan San Marko Mankomunitatearen eremuko hamar udalerrietatik idazkari eta kontu hartzailek topatzeko". Euren iritziz,

Mankomunitateko udalerrietako funtzionarioez ez dira fio. Prentsa oharraren sinatzaileek gaineratzen dutenez, "ezintasun eta gabezia hori estali asmoz, San Markoko estatutuak bihurritu ditu (Merinok), Diputazioko arduradun bat batzarrak bozkatu gabe izendatuz".

### Gobernu berria, errauste plantaren defendatzaile

"Euren helburuak azkeneraino eramateko ez dute trabarik nahi eta aginduak onartuko dituzten txotxongiloak behar dituzte, horretarako legedia urratu behar badute ere", aipatzen da prentsa oharrean. Herritar eta udalerrien interesak defendatu beharrean, Gipuzkoako Partzuergoarenak, errauste planta defen-

datzen ari direla ondorioztatzen dute Ezker abertzaleak, Alternatibak eta Ezker Batuak, gobernu talde berria Diputazioaren menpe dagoela adieraztearekin batera.

Bosgarren edukiontzia alde egin duten apustua ere kritikatu dute. "Atez ateko bilketak baino hamar aldiz emaitza kaskarragoak lortzen dituen sistema baten alde egin nahi dute, birziklatzaile moztarra jantzia duten bitartean, errauste ereduaren alde indar guztiz ari direnean", adierazi dute. Herritarrei autokonpostatzeari eta atez ateko bilketari buruzko informazioa mugatzea ere egotzen diete, hainbat aipamen kendu baitituzte Mankomunitateko web orrialdetik.

## Keen inguruko firma bilketa udaletxean aurkeztu da

**I**railaren erdialdean, bizilagun talde batek sinadura bilketa bat jarri zuen martxan. Enpresetatik datozen ke eta usainekin kezkatuta, 702 izan dira euren sinadura eman duten herritarrak. Azaroaren 2an, sinadura horiek guztiak udaletxean aurkeztu ziren.

Bizilagun talde honek igorri digun idatzian diotenez, "Usurbilgo 702 auzokideren babes honekin, non herriko biztanleriaren %10a baino gehiagoren adierazle den, guztion onurarako, gure osasuna eta ingurugiroaren babeserako, gure ahaleginarekin jarraitzearen bete-beharrean sentitzen gara".

Sinaduren ekimena bideratu duten herritar hauen ustez, "udaletxeak keen eta arnasten dugun airearen ingurumen baldintzen inguruko informazioa badauka, eta baita Osakidetzak, Ingurumen Sailak eta gure inguruko zenbait enpresek ere, bereziki Usurbilgo biztanlerian ematen diren minbizi kasuen jazoeraren inguruan". Sinadurak aurkeztearekin batera, bistan denez, informazio hori ere eskuratu nahi dute bizilagun hauek.

### Udalarekin biltzeko deia

Sinadurekin batera, idatziz honako hau eskatu diote alkateari:

1. Herri aldarri honen buru izan zaitezela, arnasten dugun aire honen eta gure osasunaren aurka joan daitekeen edozein jazoera saihestu ahal izateko.

2. Bilera batera dei gaitzazula, gaiaren inguruan ardura duten beste zenbait herritarrekin batera.

3. Bilera horretan keen eta arnasten dugun airearen ingurugiro baldintzen inguruan duzun informazioa ezagutzera ematea, baita Usurbilen ematen diren minbizi kasuen jazoera ere.

4. Alkate zaren horretan zein neurri zehatz hartzeko asmoa duzun azaltzea, gure laguntza nahi izanez gero, eskumena duten erakundeek lagun gaitzaten, hala nola, Osakidetza, Ingurumen Saila, Industria Saila, enpresak eta abar. Auzokideek jakin beharra dugu inguruko enpresen jardunak ez duela inongo arazo larririk sortzen gure osasuneari".

Udalak, bestetik, azaroaren 25ean egingo du agerraldi publikoa Udarregin.



ATXEGALDE, KE ARTEAN; DUELA HIRU URTEKO ARGAZKIAN.

## Azaroaren 25ean, Udalaren agerraldia

**E**gun hauetan, airearen kalitatearen inguruko diptiko bat banatu da Usurbilgo etxe guztietan. Industria, garraio eta bestelako jarduerak eragin zuzena dute airearen kalitatean. Eta eragiten duten kaltea neurtu beharra ikusi zuen Udaleko Ingurumen sailak.

2007ko ekainaz geroztik, eta bizilagunen kezkei erantzunez, Usurbilgo Udalak gaiaren inguruko azterketak bultzatu eta eskumenak dituzten erakundeekin behar besteko ekimenak abiarazi dituela dio Udalak, usurbil.net webgunean ipini duen idatzian:

### "Industria

2007. Usurbilgo Udala eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailaren artean udalerriko zenbait aktibitateen jarraipen egin da, ingurumen araudia betearazteko asmoz. Ondorioz, neurri zuzentzaileak ere abiarazi dira.

2007 - 2010. Usurbilgo Udalak enpresen ingurumen baimen bateratuan jarraipen zorrotza egin du beste erakundeekin elkarlanean eta Usurbilgo ekonomia-jardueren ingurumenaren gaineko egoera aztertu du.

### Airearen kalitatea

2007-2010. Atxegalde, Zubieta, Osinalde zein Txikiardin aire kalitatea neurtzeko kanpainak egin dira. Batetik

*EHU-ko kimika fakultatea, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Saila eta Buruntzaldeko Udalekin elkarlanean eta bestetik Udalaren berariazko balia-bideekin ere.*

*Neurketak neguan zein udan egin izan dira, printzipioz egoera atmosferiko kaxkarrenetan. Airearen kalitatearen indizea osatzen duten konposatuak aztertzeaz gain, metal astunak eta konposatu organiko lurrunkorrek ere aztertu dira.*

*Lortu diren lehen emaitzek, airearen kalitatea eremu urbanoetan izan obiden mailakoa dela adierazten dute.*

### Kutsadura elektromagnetikoa

2010. Herriko mapa elektromagnetikoa landu da, sortzaile zein gune sentikorretako kutsadura maila aztertuz.

Lortutako emaitzekin, gune sentikorrek identifikatu eta neurri zehatzak hartzeko aurreneko pausuak eman dira".

### Azaroaren 25ean, Udarregi ikastolaren patioan

Usurbildarren osasuna bermatzeko asmoz, "airearen kalitatea eta kutsadura elektromagnetikoa hobetzeko neurriekin jarraituko dugu. Ildo horretan, azaroaren 25ean osteguna, 18:30ean Udarregi ikastolako patioan aipatu gaiei buruzko aurkezpena egingo da".

## URDAIAGA

ALAZNE BEGIRISTAIN

## Bi kontu



**G**aurkoan bi konturekin natorkiezue, Urdaigako txoko honetatik. Orain hilabete batzuk, txoko honetan aipatu nuen, San Estebango parkean faltan botatzen zirela herriko hainbat txokotan dauden bezalako zabor ontziak.

Berataratzen zen jendeak lurrean uzten zuela zaborra eta hori ere ez zela kontua.

Orain bi aste, ikastolako haurrekin irteera egin genuen San Estebanera eta hara non nire sorpresa, parkearen ondoran zabor ontziak ikusi nituenean. Ez dakit hemen idazteak zerbaitetarako balio izan zuen edo bestela ere pentsatua zegoen honek hala izan behar zuela, baina kontua da, zabor ontziak hor daudela eta zaborra lurrean uzten badugu, norberaren utzikeriarengatik izango dela eta ez halakorik saihesteko konponbiderik jarri ez delako.

Bestalde, aurreko Noaua!-n ematen zen Santuenean egiten ari diren obren berri. Akordatzen naiz frontoiaren kontua aspalditik zetorrela baina azkenean jarri dira martxan. Aipatu gaiari buruzko artikulua irakurri nuen baina hor ez zuen San Estebanera igotzeko eramaten duen bideari



buruzko aipamenik egiten. Frontoi berriko pareta altxatzen dutenean, Santueneatik irten eta lehenengo kurbako ikusgarritasuna galdu egiten da eta bidea ere ez da oso zabala.

Egia esan, egoera honek kezkatu egiten nau pixka bat. Agian kontutan hartua dago hau dena baina nik bada ez bada hemen uzten dut gaia.

## KALEZAR

MAIDER MAKAZAGA

## Iluntasuna



**N**abarmena da egunari eman diogun mozketa ordu aldaketarekin. Aidanean energia asko aurrezten omen da ordubete horrekin, baina ze tristura ematen duen arratsaldeko bost eta erdietan iluntzen ikustea!!! Baina tira, dena ez da tristea, etxera joan eta sutondoan, egurrak suarekin borrokan dabilenean ateratzen dituen zartadak entzuten egotea ederra baita. Baina lehengora itzuliaz, tristura ematen du besteak beste udan egitera ohitua zauden hainbat gauza egin ezin ditzakezulako. Etxetik atera eta osteratxo bat egitea adibidez. Denok dakigu auzoaren goikaldera abiatuaz gero, behin Iartza baserritik gora ez dagoela inolako argiteriarik, etxeetan daudenez gain, noski. Eta ze esango dizuet ba, niri behinik behin sekulako errespetua ematen dit, nahiz eta itsututa ere egingo nukeen bidea.

Eta are gehiago enteratzen zarenean egun berean auzoko bi etxetan sartu direla lapurreta egitera. Jakinekua da edozein lekutan gerta daitezkeela horrelakoak, baina gertuan direnean kezka areagotu egiten da. Baina tira, ezer gutxi dugunez egiteko horrelakoen aurrean, tentuz ibiltzea besterik ez zaigu gelditzen.

## ATXEGALDE

UNAI AIZPURUA

## Olentzero maitea...

**A**utoa hartu eta etxera. Zortzi ordu pasa eta gero lantokian, asteburuko Ajaeen azken efektuak agurtu nahian, eguneroko odisean murgiltzen naiz berriro. "Lasai motel, gaur zortea izango dek eta!", esaten diot neure buruari. Atxegaldera heldu eta, euria barra barra. (*Katxis!*). Aterkia etxean gaur ere, etxeko "paragueroa" adornatzen. Etxe aurrera heldu eta lekurik ez. *Ostia!*, gaur ere tokirik ez. Ondoko aparkamendura zorrozki begira jarri eta arte ederretako *performance* bat bezala autoak aparkaturik. ETB2ko *oesteko* filma bailitzan, bakoitzak nahi duen bezala aparkatzen du, bakoitzak dugun artista puntu hori (inprobisazio eta sormen handikoak gara Atxegalden) agerian utziz, ez baitago marrarik lurrean. *Kabensotz!*. Beno ba, Alperro-Buru kalean gora noa, eta zero patatero. Udarregi pasa, eta polikiroldegira. *De dio hemen ere ez?*, azkenean anbulatorioan aparkatu behar. Zein zaila bihurtzen ari zaigun Atxegalden aparkatzea azken aldian, eta gaizki aparkatuz gero, hurrengo egunean, "*sorpresa*"! Nahiko zailak izan ohi dira udazkeneko egun heze eta hotzak, saiatu gaitezen atxegaldetarron premi txikiak asetzen! Zenbat gehiago itxaron behar dugu, Olentzerori gutuna idatzi arte edo?



AGINAGA

LONTXO ZUBIRIA

## Piper klase desberdinak



**P**iperrak landatzen diren lursailak ugartzen ari dira gure inguruetan. Horrekin batera kilo produkzioa ere gora doala iruditzen zait, bai gure inguruetan baita Iparraldean ere. Gero eta jende gehiagok jaten omen ditugu piper hauek, lehen kontserbakoak bakarrik ezagutzen genituen, baina, tabernetan eta jatetxeetan frijituta eskaintzen hasi zirenetik, jende gehiagorengana iritsi direla esango nuke.

Batzuetan piper hauetako batzuk, ezarria erretzen dituzten bezala, orain dela urte batzuk sentsazio berdinarekin gelditu ginen asko eta asko Lizarra-Garaziko akordioa apurtu zen egunean.

Orain beste era batera probatu beharko dugu, baina, aurrera begiratzeko bide garbia ikusteko lehenik, atzera begiratu beharra dago derrigorrez.

Ezker abertzalea deitzen dugun pentsakera zabalean indar nagusia den mugimendu horrek ezingo du lehen bezala jokatu: indartsuena izateagatik edo gehiengo edukitzeagatik beste guztiei berea inposatzea -edo bestela bazterketa gogorra jasanaraztea- ez da bide ona. Euskal Herriaren etorkizunari begira, borroka zaila daukagu aurretik, eta elka-



rren beharra izango dugu, denok. Elkarlanak ilusioa eta esperantza sortuko duelakoan nago. Ea egia den. Piperren konparaziora bueltatuta, Iparraldean, Ezpeletako piper gorroak beste era batetara komertzializatzen dituzte, lehortuta, xehetuta... Ipar Euskal Herriko abertzale munduak ere, pozik hartu du Gernikako Ituna. Baina han beste erronkak dituzte etorkizunari begira, gurea baino egoera konplexuagoan baitaude nire ustez.

KALEBERRI

IRATI PORTU

## Ekozinemaldia Sutegin



**A**ste honetan bertan, ostegunean eta ostiralean, Ekozinemaldia ospatuko da Sutegin. Ez da antolatzen den lehenengo aldia. Ekainean bertan, hiru egunez dokumental eta pelikulak antolatu zituzten. Antolatzaileetako batek aipatu didanez, aurrekoan elikagaien gaia landu zen gehienbat; adibidez, geure gizartearen soja edo haragi kontsumoa mantentzeak beste herrialde batzuei zer suposatzen dien ikusi ahal izan zuten gerturatutakoek. Oraingoan berriz, bestelako gaiak landu nahi dira (presak, zentral nuklearrak...) beti ere helburu berberarekin: zor ekologikoaren inguruko gogoeta bultzatzea eta egungo arazo ekologikoak ikuspegi global batetik ikusaraztea.

Azken finean, mundua bat eta bakarra dugu, eta badugu garaia ohartzeko leku batean egiten diren astakeriek denok kaltetzen gaituztela, ikusten ez baditugu edo kolore desberdineko (zentzu guztietan) pertsonak bultzatzen badituzte ere. Aurrekoan kale egin nuen eta oraingoa ez dut galduko. Polita iruditzen zait jendartean kontzientzia ekologikoa eta besteenganako elkartasuna zabaltzeko. Beraz, anima zaitezte!

ZUBIETA

PELLO ARANBURU

## Berritan labur

**Z**aila da Zubietan gertatutakoen berri ematea. Hainbat kontu, beharbada, ez dira oso berriak: errauskailurako bidea aurreratu xamartua dago.

Edo leku askotako kontuak dira: Takolok eta Pirritxek, eta beste lagun askok bete egin zutela frontoia leporaino orain dela hamar egun. Edo ez dute interes handirik: Artzabaletako erreka ondoko hesia konpondu eta ostera bota egin dutela...

Bitartean artoa eta babarrunak biltegitratuta daude. Zelaietatik begia jaso eta uso baino guarda gehiago inguruetan.

Koadrilan ezustekoa: inguruko hildakoei buruz hizketan hasi eta luze jo dugu. Hildakoak, haien gaixotasunak, bizimoduak eta abar. Gai nekrologikoak badu emana. Nere artean, beste koadrila baten bila ez ote naizen hasi beharko...

Gaitik urrundu nahi eta albokoak aipatzen hasi zaizkit lurralde urrunerako bidaiak, sekula ikusi ez ditugun eremuak eta ibilbideak, herri exotikoak guztiak ere.

Garbi dago: negua, atzetan.



## Imanol Murua kazetariak, Sutegin esanda

# “Loiolako bileretan, akordioa lortzear izan ziren”

**I**manol Murua Sutegin eskaini zuen hitzaldiak jende ugari erakarri zuen. Hitzaldiaren une batean, momentu historiko baten aurrean gaudela adierazi zuen Imanol Murua. Eta akaso horregatik, kontestu berri batean gaudelako, eta jakinmina ere handia delako, hitzaldia bezain interesgarria izan zen galdera-erantzunen tartea.

2006ko udazkenean PSE-EE, Batasuna eta EAJ-PNVko buruzagiak Loiolako santutegian bildu ziren lehen aldiz. Guztira, 12 izan ziren bertan egin ziren bilerak.

Negoiazio prozesu hura da Imanol Murua kazetariak idatzi duen liburuaren ardatz nagusia. “Loiolako hegiak” izena duen liburuak zeresan handia eman du hilabeteotan. Esate baterako, PSE-EE, Batasuna eta EAJ-PNV akordioa lortzear izan zirela dio, zirriborroa ere hitzartu zutela Loiolan, baina ixtear zela porrot egin zuela Loiolako negoziazio mahaiak: “Euskal gatazka politikoa konponbidean



JENDE UGARI BILDU ZEN IMANOL MURUAREN HITZALDIAN.

jar zezakeen formulazio idatzi batera iritsi ziren Loiolan”, adierazi zuen Murua.

### Entzuleak, galdezka

Liburu osatzeko, Jesus Egiguren, Iñigo Urkullu eta Arnaldo Otegiarekin egon zen hizketan Imanol Murua. Haien kontaktuzunak bildu eta beste iturri batzuekin

egiartzatutako informazioarekin osatzen da “Loiolako hegiak” liburua.

Pasa den astean Sutegin eskaini zuen hitzaldian, Loiolako solasaldietako ardatz nagusiak azaltzen saiatu zen. Hainbat anekdota ere kontatu zituen eta entzuleen galderak erantzuteko tartea hartu zuen.

## Ikusle asko aurtengo Kulturaldian

**I**manol Muruaren hitzaldiarekin hasi zen Kulturaldia, NOAUA!k antolatutako duen kultur zikloa. Aurten ere, jarduera ezberdinen ispilu izango da Kulturaldia. Eta jendearen erantzunari dagokionez, oraingoz behintzat, inoiz baino jende gehiago gerturatu da antolatutako diren saioetara.

“Debekatua dago oroitzea” dokumentalaren bidez, 36ko gerraren

pasarte ilun baten berri izan genuen.

Baina barre egiteko aukera ere izan dugu Kulturaldian, “Prest gaude!” antzerki saioarekin. Sutegira bertaratu zirenak arratsalde atsegina igaro zuten.

Eta pasa den igandean, “Ornitorrinkus” ikuskizunean, emaldi ezberdin bat ikusteko aukera izan genuen.



LAKRIKUN TALDEKOAK SUTEGIN IZAN ZIREN LARUNBATEAN.

### ALIPROX

Kale Nagusia 10  
☎ 943 361 182  
USURBIL

**JUANTXO**  
BURDINDEGIA

Zubiaurrenea 8  
☎ 943 370 008

Kale nagusia, 10  
Telf: 943 37 33 48  
943 37 09 13

Okindegia - Gozotegia

**LABE-GOXO**

### Patri Jatetxea



K/nagusia 14. ☎ 943 362 725



## Herriko merkataritza eta ostalaritza sektoreak biziberritzeko plana martxan da

**I**az Siadeco enpresak Usurbilgo Udalak lagunduta, herritarren erosketa ohiturak eta establezimenduetako langileen iritziak ezagutzeko azterketa egin zen. Lan hura ardatz gisa hartuta, datozen hiru urteotarako herriko merkataritza eta ostalaritza biziberritzeko plangintza martxan da jada.

Erosotasun, erakargarritasun eta lehiakortasunean irabazi, establezimenduenak promozionatu, bezeroen fideltasuna bultzatu edota Hurbilago elkarte biziberritzea izango dira plangintza honen bidez garatu nahi diren lan ildo nagusiak.

Lan ildo hauek gauzatzeko elkarlan akordioa sinatua dute Hurbilago elkarteak eta Usurbilgo Udalak, joan den aste-ko prentsaurrekoan adierazi zuten. Besteak beste, sektoreko lan-mahaia eratu, plangintza gizarteratu, eremu komertziala babestu, eta herriko ekimenean sektorearen parte hartzea bultzatzeko konpromisoa hartua du Udalak. Hurbilagok aldiz, bazkide berriak lortu, elkarte dinamizatu edota herritarrak sektorearekiko sentsibilizatzea.

Siadecoko ordezkari Juanjo Allurrek herritarrak herriko saltokietara erakar-tzeaz jardun zuen aurkezpen saioan. "Herri-kanpora joateko ohitura dago.



PASA DEN ASTEAN PRENTSAURREKOA ESKAINI ZUTEN UDALETXEAN.

Horri buelta eman behar zaio", adierazi zuen.

### PATXI IPARRAGIRRE

"Ateak zabalik ditugu Hurbilago elkarte-  
n, hau ez da talde itxia"

Merkataritza sektoreak herrigintzan eta bizitza sozialean duen funtzioaz jabetu behar garela gaineratu zuen. Ildo beretik, iritzi bera plazaratu zuen Xabier Mikel Errekondo alkateak. "Herri bizia bada Usurbil, egitasmo honek gehiago bultzatuko du bertako herri bizitasuna", adierazi zuen.

"Bide luze baten lehen harria". Esaldi horrekin laburbildu zuen Hurbilago

elkarteko lehendakari Patxi Iparragirre, abian den plangintza. Egitasmoa gauzatzeko, elkarlanaren garrantziaz ohartarazi zuen. "Sektoreak lan handia egin beharko du, herri honen sustapenerako. Jendea ere jabetu dadila une honetan dagoen egoeraz", adierazi zuen. Bestalde, gonbita luzatu nahi izan zuten une honetan Hurbilago elkarte barruan ez dauden herriko establezimenduei. "Ateak zabalik ditugu. Hau ez da talde itxia".

### 96 establezimendu, 300 langile

Egun, 96 establezimendu ditu Usurbilek eta sektore honetan lanean diharduten 300 langile.

Usurbildarren merkataritza gastua 24 milioi eurokoa izanik, %45 gastatzen da herriko establezimenduetan; %27 Urbilen eta, beste % 28, beste herrietan.

## Hurbilago txartelarekin deskontu eta opariak, abendutik aurrera

**B**ezeroen fideltasuna bermatu eta Hurbilago elkarteko bazkide diren saltokiak promozionatu asmoz, erosketa txartel berria eskuratu ahal izango da laster. Abian den plangintza honen barruko ekimen nagusietako bat izango da.

Eguberriak ate joka izango ditugun hilabete hasieran, abenduaren 1etik aurrera herritarren eskuragarri izango da Hurbilago txartela. Txartel hau Hurbilago elkarteko bazkide diren saltokietan baliatu ahal izango da. Puntu bidezko sistemaren bidez, opariak jaso eta deskontuetarako aukera emango du. Abendu osoan zehar, aipatu txartelare-

kin Hurbilago elkarte barruko saltokietan erosketak egiten dituzten herritarrei %5eko deskontua aplikatuko zaie.

### Txartela doan eskura daiteke

Gainera, txartela eskatzeagatik soilik, 5 euroko erosketa balea jasoko du bezeroak. Puntuok kontsultatzeko web orri bat ere izango da, eta ordainketa txartela den neurrian, baita egindako erosketak kontsultatzeko aukera ere. Bestelako abantailarik eskaintzen du txartelak; inolako kosturik gabe erosketen ordainketa hiru hilabetez atzeratu ahal izatea, bankuz aldatu beharrik izan gabe.

Txartela asteotan eska liteke,



Hurbilago elkarteko kide diren establezimenduetan. Eta doan, bezero bakoitzak berea etxean jasoko du. Egitasmoa, Hurbilago elkarteak eta Nafarroako Rural Kutzak bultzatu eta Usurbilgo Udalak eta Eusko Jaurlaritzako Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailak lagundu dute.

# Mendeku Itxuak "Piztien pare"

## lan berria aurkeztuko du azaroaren 19an

**L**an helduago, borobilago eta indartsuagoa izango dela aurreratu dute. Aurtengo Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azokan erosteko aukera izango da, egileen esanetan, ehuneko ehunean Usurbilen ekoiztako produktua dena. Mendeku Itxuak kaleratzeaz du; "Piztien Pare" izenekoa. Azaroaren 19an Donostiako Dokan aurkeztuko dute, iluntzeko 21:00etatik aurrera.

**NOAUA!** Zer izaera du zuen lan berriak?

**Ander Aizpurua.** "Piztien Pare" diskoiko abesti bat da. Diskoari izen hori emateak zentzu bikoitza du; gizakia piztien pare tratatua egotearen inguruko protesta abestia da eta disko osoak ere zentzu bera du.

**Iñigo Roteta.** Gizartearen deshumanizazioa. Gizakiaren bizitzak garrantzi handia izan eta besteen gainetik dagoela suposatzen da. Baina ikusten dena da ez duela ezer balio. Jada sarraski handienak ikustera ohitu gara eta ez digu batere axola. Denok berdinak garelako saltzen da, baina ez da hala.

**Ixak Arruti.** Gizakiak gizakia piztien pare noiz tratatzen du mundu honetan? Edonoren menpe dagoen edonor. Diskoak bestalde, indarra du.

**N. Aurreko diskoaren ezaugarri nagusi gisa ere indarra aipatzen zenuen. Zer beste ezaugarri ditu honakoak?**

**I. A.** Abiadura gutxiago, baina sendotasun gehiago du.

**I. R.** Matxakoiagoa, transmetaleroagoa da.

**A. A.** Errepika, abesbatza eta kantatzeko modu aldetik, betiko Mendeku Itxua izaten jarraitzen dugu. Bere melodia eta armonia hor dauzka, baina gogorragoak. Mantsoagoa izan liteke orokortasun batean, gogorrago baina sendoa.



DONOSTIAKO DOKAN EGINGO DUTE AURKEZPENA, AZAROAREN 19AN.  
ARGAZKIA: IBAI ARRIETA.

**N.** Ekoizpen prozesua nola joan da?

**Martin Larrañaga.** Egia esan, aurreko diskoa kaleratu genuenetik ez gara geratu. Mantso baino segituan hasi ginen kantak sortzen.

### MARTIN LARRAÑAGA

"Egia esan, aurreko diskoa kaleratu genuenetik ez gara geratu ere egin"

**I. R.** Iazko udaratik gabiltza. Gero otsailean geldialdia egin genuen eta orditik buru-belarri lan eta lan.

**I. A.** Kantak ondo jantzi, ondo borobildu eta estudioara joan ginen, Haritz Harreguyrena.

**N.** Orain arte egindakoarekin, gustura? Espero bezala doa dena?

**A. A.** Oso forma ona hartzen ari da, sendotasuna hor dauka. Oraindik nahasketetan hasteko gaude, musikak bere distira ateratzeke dauka. Baina bai, orain arte buruan izan eta hemen prestatu genuena plasmitzen ari da.

**N.** Aurkezpena azaroaren 19an. Kanean noizko?

**A. A.** Eskuan ale batzuk izango ditugu egun horretan.

**M. L.** Asmoa Durangoko Azokan aurkeztea da eta hortik aurrera dendetan salgai egongo da.

**N.** 2009an aurreko lana, 2010ean lan berria... Oporrik ez du hartu Mendeku Itxuak?

**M. L.** Mendeku Itxua inoiz baino biziago dago. Orain arte dedikatu gabeko orduak dedikatzen ari gara, nahiz kontzertu gutxiago eskaini ditugun. Eraitza hori da, disko bat atera eta segituan bestea kaleratzea. Musikalki gustura gaude eta horren guztiaren isla da lan hau.

**N.** Kontzertu gehiago lotu dituzue, aurkezpenaren ostean?

**M. L.** "Indarrak batuz" plazaratu genuenean, hasieran bi kontzertu baino ez genituen lotuta. Baina gero uda hartan, astebururo jotzen aritu ginen. Orain publikoki erdi lo egon garen arren, hiru kontzertu eskaintzeko aukera sortu da.

## Aurreko diskoarekin alderatuz, “nabari da kristoren jauzia dagoela eta askoz ere heldutasun handiagoa”

NOAUA! Aurkezpen aurreko asteotan taldean estreinaldi aurreko urduritasuna nabari duzue?

A. A. Urduritasuna ez. Baikorak gara dena ondo aterako dela, baina lana ikaragarri dugu.

I. A. Prozesu guztian, bederatzi bat hilabete kontzertuak eskaini gabe darmatzagu. Horregatik, Akerra Gaztetxeko inaugurazioa baliatuz nahia go izan genuen bertan jo eta Gasteizen ere, Dokara joan aurretik errodajea hartzen joateko.

### IXAK ARRUTI

“Disko honetan inoiz baino gehiago lortu dugu gure barrukoa ateratzea”

N. Desegin taldekoak zuekin ziren Akerran. Belaunaldi berria gogotsu dator?

A. A. Gure lokalean topera entseatu eta lanean ibiltzen den taldea da eta gustua ematen du. Indartsu ari dira.

I. A. Ilusioa dute eta hori ondo jotzen jakitea baino garrantzitsuagoa da.

I. R. Inbidia puntu bat ere ematen du, guk jada bizi izan baitugu. Hasierako inozentzia hori dute, baina kontzertuetan kantak jotzeko emozioa. Identifikatu egiten zara. Hemen 15-16 urterekin jotzen beste heavy batzuk badaude, eta ikusten duzu odol berria datorrela eta hori kristoren gozamina izaten da.



GIZARTEAREN DESHUMANIZAZIOAZ HAUSNARKETA EGIN DUTE DISKO BERRI HONETAKO KANTUETAN. ARGAZKIA: IBAI ARRIETA.

N. Lan berri honek zuen taldearen norabidean, zer suposatuko du?

M. L. Hasieran baten ispilua zara. Orain, gure estilo bat bilatzen hasi gara, nahi gabe.

I. R. Pertsonalitatea aurkitzen ari gara eta geuretzten. “Indarrak batuz” lanetik nabari da kristoren jauzia dagoela eta askoz ere heldutasun handiagoa dagoela. Diskoa borobilagoa eta hobea da.

I. A. Aurrera goaz. Beti egon da hobetzeko nahi edo ilusio hori eta lortu

dugu. Disko honetan inoiz baino gehiago lortu dugu gure barrukoa ateratzea, inoiz baino beldur gutxiago izan dugu eta hori asko nabarituko da.

N. Bukatzeko, gonbidatu zaletuak Dokara...

I. R. Disko berriko kantak joko ditugu. Eskertuko genuke herriko jendea bertan izatea. Nork egingo du ba gure alde? Espero dugu Usurbilgo jendea etortzea.

**LAUKOTE**  
OKINDEGIA  
KAFETEGIA  
Puntapax kalea, 16 behea  
(Artzabal). 943 36 09 80

**TAXI**  
677 37 34 66  
943 36 69 69  
Jose Etxabe (24h) USURBIL

**Otar-Goxo**  
Elkarrizketak  
Zubiaurrenea, nº2  
943 36 55 81  
20170 Usurbil

**WWW.NOAUA.COM**  
USURBILGO ATARIA

## Santa Zeziliaren omenezko kalejira eta kontzertua, datorren ostegunean

**A**zaroaren 22a Santa Zezilia eguna izango da, musikarien zaindaria. Zumarte Musika Eskolak, urtero, hainbat ekitaldi antolatzen ditu egun honen bueltan. Baina festa azaroaren 18ra aurreratu dute. Egun horretan, Euskal Herriko musika eskola guztiak kalejiran aterako dira. Tartean, Usurbilgoa.

Datorren ostegunean, azaroak 18, Zumarte Musika Eskolakoek Musikalean izeneko kalejira egingo dute Usurbilen. Txaranga eta trikitixapandero taldeak hartuko dute parte, 18:00etan hasiko den ekitaldian.

19:00etan aldiz, Musika Eskolako talde instrumental ezberdinek kontzertua eskainiko dute Sutegin.

**Musika Eskolatik abiatuta**  
Musikalean kalejirak, musikarien



DUELA BI URTE EGIN ZEN MUSIKALEAN KALEJIRAREN LEHEN EDIZIOA. MUSIKA ESKOLA GUZTIEK KAMISETA BERBERAREKIN EGIN ZUTEN KALEJIRA.

eguna modu bateratuan ospatzea du helburu, eta elkarteak osatzen duten 38 musika eskoletako 1.700 ikasle nahiz

irakasle baino gehiagok hartuko du parte bertan. Zumartekoak, Musika Eskolako ataritik abiatuko dira.

### HITZA ETA MUSIKA Yolanda Arrieta eta Jantxo Zeberio "OFF-ON", testu laburrak, akzio sinbolikoak, musika biltzailea

\*Sarrera: 5€ (Usurbilgo Txiriboga tabernan, Noaua!n eta egunean bertan).  
Noaua!ko bazkideek 3€tan erosi ahal izango dute Noaua!n aldezturik.



11/13 AZAROAK 13, LARUNBATA, 19:00 USURBILGO SUTEGIN

Larunbatean, "Off-On" ikuskizuna Sutegin

## Yolanda Arrieta: "Imajinatu ipuin bat kontatuko dizuetela, musikaz lagunduta"

**N**OAUA! Kultur Elkarteak antolatutako Kulturaldia 2010 amaitzeko, "Off-on" saioaz gozatu ahal izango da larunbat honetan, azaroak 13, 19:00etik aurrera Sutegiko auditorioan. Hitzak eta musika uztartuko ditu emanaldiak, Juantxo Zeberio eta Yolanda Arrietaren eskutik. "Off-on" liburuan oinarritutako emanaldiaren xehetasun gehiago dakartzela lerrotan, Arrietak.

**NOAUA! Nola definitu liteke Sutegin eskainiko duzuen emanaldia?**

Yolanda Arrieta. Entzun eta ikusteko saio bat. Imajinatu ipuin bat kontatuko dizuetela, musikaz lagunduta... Eseri eta utzi zeure buruari joaten. Orubete baino ez da, eta butaka erosoan egongo zara, ilunpean.

### LIBURUAN OINARRITUTA

Hitzak, musika eta akzio sinbolikoak erabiliko dituzte Sutegin egingo duten saioan

**N. Nori legoke zuzendua?**

Y. A. Eguneroko gauzak pixka batean aparkatu eta eguneroko gauza horiek eragiten dizkiguten emozioak hitz ederez eta musika esanguratsuz aditzeko prest dagoenari, eta nola ez, heldua izan arren, musikaz lagundutako ipuin bat entzun eta ikusi nahi duenari.

**N. Literatura eta musika uztartuko ditu zuen ekitaldiak. Bien arteko oreka bat emango da?**

Y. A. Bai, oreka dinamiko bat. Juantxo Zeberio orubete osoz laguntzen dit, geratu gabe, nire hitzei, uneko emozioei eta erritmoari adi.

**N. Nola islatu dituzue, OFF-ON, edo OFF eta ON aurkezpen testuan baliatzen dituzuen kontzeptuak?**

Y. A. Hitzak, musika eta akzio sinbo-

likoak erabiliko ditugu. Liburuan oinarritutako ikuskizuna antolatu dugu, eta liburuko OFF-ON kontzeptua ikuskizun baten arauetara moldatu dugu horretarako eratutako egitura propio batekin.

**N. Zer beste ezaugarri izango ditu azaroaren 13ko ekitaldiak?**

Y. A. Esandakoa: liburuko pasarte batzuk elkar josita, emozio desberdinak, musika biltzailea eta nor bere barruan "tilin" egiteko testuak, bizitzaren alderdi gozo eta mingotsak modu xume, sotil baina, nire uste apalean, edertasunez kontatuta. Guk halaxe bizi dugu, behintzat.

**N. Badirudi batzuetan literaturari lotutako ekitaldiak, gehienbat hurrei zuzendutakoak direla. Zailagoa al da helduengana ailegatzea?**

Y. A. Helduentzat zaila da plazatik aretora jaitea, baina, maila banaka batzuk jaitsi, lasai-lasai ilunpean eseri eta norbaitek zeuri zuzen-zuzenean denok sentitu arren inork esaten ez dituen gauza horiek kontatzea plazer bat izan daiteke, eta, gainera, orubete baino ez da, eta gero lasai asko joan gaitzke ogitartekoa jatera lagunekin, betiko moduan. Hori bai, aukera librea da, jakina.

**N. Euskadi Sarietan finalista. Halako kontuek, errespetua ematen dute?**

Y.A. Beno, errespetua baino gehiago, zeresana ematen dute eta, zeresanak zeresan, merezimendu guztiak dira ongi-etorriak gurean.

**N. Halako merezimenduek idazteko zaletasuna indartzen dute? Nola bizi dituzu kontuok?**

Y. A. Idazteko zaletasuna askotan beharra, tarteka plazera eta noiz behinka deskubrimendua izaten da niretzat eta saiatzen naiz neure bizitza hobetzeko ohitura moduan hartzen. Sariak eta hala-



LARUNBAT HONETAN SUTEGIN ARITUKO DA, JUANTXO ZEBERIO PIANOJOLEAREKIN BATERA.

koak nolabaiteko "igande" edo "festa egunak" dira, baina asteak beste bost edo sei egun ere baditu, astegunak direnak eta horiei ere jai kutsua eranstea da nik idazketaren bidez bilatzen dudana.

### Durangoko Azokan izango da

**Y**olanda Arrieta aurtengo Durangoko Liburu eta Disko Azokan izango da. "Abenduaren 5ean Ahotsenean Leire Urbeltz irudigilearekin emanaldia dugu, *Itzalpetik* album ilustratuaren inguruan. Bestalde, Erein argitaletzeko 'Neskatalak' sail berria aurkeztuko dugu, bertan parte hartu dugun zortzi emakume idazle eta beste zortzi irudigilek, bakoitzak bere ipuinarekin. Nirea *Nitaz ahaztu dira* izeneko da", adierazi digu Yolanda.

# Sei eskubaloi talderekin, Usurbil KE denboraldi betean da

**G**uztira sei dira, 2010-11 kirol urtean onena emateko prest egonik neurketa eta entrenamendu saioetan murgilduta dabiltzan eskubaloi taldeak. Giro ona mantentzearekin batera, kasu batzuetan mailari eustea izango dute erronka batzuek, edota maila hobetzea besteek. Edozein kasutan, guztiak ondo pasa eta gogoz jarduteko asmoz dira.

Mutil eta neska talde kopuru orekatuarekin hasiko dute denboraldia eskubaloi taldekoek, hiruna talde, guztira sei beraz osatu baitituzte aurtengogan. Zazpi ere izan zitezkeen baina bada iaztik hona desagertu den eskubaloi talde bat, jubenil mutilena hain zuzen.



ESKUBALOI TALDEAK GOGOZ EKIN DIO DENBORALDI BERRIARI. IRUDIA IAZKO TALDE BATEKOA DA.

## JUBENIL TALDERIK EZ

“Jokalari aldetik iaz justu ibili ziren eta aurten berandu samar ibili gara eta ezin izan dugu taldea osatu”

Usurbil KE-tik zehazten dutenez, “jokalari aldetik iaz justu ibili ziren eta aurten berandu samar ibili gara eta ezin izan dugu taldea aurrera ateratzeko kopururik osatu”.

Halere, hurrengo denboraldian berriz taldea osatzen ahalegintzeko asmoa dute eskubaloi elkarteek.

## Urnietarrekin batera

Osatu den taldeetako baten, kadete nesken erronka nagusia infantil mailatik igotako jokalarien laguntzaz mailari eustea izango da, iazko denboraldi onaren ostean. “Hor dago iazko kasua; hasieran helburu honekin hasi ginen eta azkenean Espainiako sektorea jokatzerara iritsi zen taldea”, adierazi dute eskubaloi elkartetik.

Hamabost jokalaria inguru izango ditu, Euskal Ligan jokatuko duten jubenil eta senior taldeek bezala.

Azken hauen, senior nesken taldea iaz osatu zen, ahalegin askoren ostean Usurbil KE-tik diotenez. Horregatik, taldeak etorkizunean jarraipena izatea nahi dute. Eskubaloi elkartetik aipatzen dutenez, aurten urrats bat gehiago ematea proposatzen zaie senior neskei; “beraien kirol maila egonkortu eta lehiakorragoak izatea. Hau ematen bada, ziur gaude emaitzak etorriko direla”.

## Jubenil mailako neskek

Jubenil nesken taldea ere ahaleginen ostean osatu da. Usurbilgo zazpi eta egoera berean zegoen maila bereko Urnietako beste zortzi jokalarirekin. Modu honetan, talde hau osatuta, kadete neskek ere Euskal Ligan jokatzea lortu dute, Usurbil KE-tik diotenez, “Euskal ligan egoteko bi taldeak behar dira” eta. Euren erronka nagusia, jokatuz gozatzea izango da.

## Senior mutiletan bi talde, bat bestearen osagarri

**S**enior mutiletan bi talde osatu dira. Batetik, 2. nazional mailan jokatuko dutenak. Hamaseikoa lehiakortasun handiko mailan jokatzen ari da, antzeko maila dute talde partaide guztiak. Horregatik, Usurbil KE-koen esanetan, “edozeinek edozeini irabaz diezaioke, beraz partida denetan dena eman beharko dute”. Mailari eustea izango da euren erronka.

Nazional mailan jokatzeako aukerarik ez dutenek eskubaloian jarraitzeko aukera izan dezaten osatua dute senior mailako bigarren taldea Usurbilen; 2.territorial mailakoa. Nazional mailako taldeak jokalaria lesionatuak baldin baditu haiei lagundu eta gerora, aipatu maila horretan parte hartzeko aukera ere eskaintzen zaie.

## Klubaren helburu nagusia, “jokalariei eskubaloian jokatzeko aukera eskaintzea”

**K**adete mutilen taldea ere osatu dute aurtengoan. Gipuzkoako Ligan jokatu dute hamabost partaideek. Saillapena erreferentzia gisa baliatu gabe, maila hobetzen jarraitzea izango da euren erronka nagusia. Usurbil KE-koen esanetan, “horretarako partida denetan gogo eta jarrera positiboa izatea garrantzitsua izango da”. Ondo pasatzeaz ahaztu gabe.

### Talde lana eta giroa, erronka nagusiak

Aurtengo denboraldirako osatu diren sei taldeetako bakoitzak bere helburuak izango dituen arren, badira Usurbil KE-tik eskubaloi jokalarien artean, oro har bultzatu nahi dituzten bestelako jarrera eta erronka komunak ere. “Klubaren helburu nagusia herriko jokalariei eskubaloian jokatzeko aukera eskaintzea da, eta taldeko lana bultzatu eta taldearen disziplinaren berri ematea jokalariei. Honetarako ezinbestekoa da talde giro



KIROLDEGIRA ANIMATZERA JOATEA OSO GARRANTZITSUA DELA USTE DUTE TALDEKO KIDEEK.

ona bultzatzea”, adierazi dute eskubaloi elkartetik.

Usurbil KEtik laguntzarako deia luzatzen dute: “Esan aurtan ere Usurbil KE-ko kideak gustora hartuko dugula jaso dezakegun edozein laguntza, bai zuzendaritzan, partidetan, errifak erosten...”. Usurbil KE martxan da lanean, taldeak ere bai. Kirol urte honi begira honako gonbita luzatu nahi dute: “Kiroldegira joateko eta gure taldeak animatzeko eskatzea beste ezer ez zaigu geratzen!”, adierazi digute.

### Bi lagunentzat afaria, Patri jatetxean

**2**.908 izan da denboraldi berri honetako, eskubaloi elkartekoek burutu ohi duten zozketa zenbaki saritua. Jabeari, Paulina Ikutza Balerdiri bi lagunentzat afaria egokitu zaio Patri jatetxean. Ohi bezala, antolatzaileek, zozketan parte hartu eta errifa erosten dituztenak eskertu nahi dituzte. Aurtan ere, hamabost egunero egingo dute zozketa, tartean baita zozketa bereziak ere.



## Lasarte-Oria Bai! krosean atera ziren asko, Behobian pentsatzen...

**B**ehobia-Donostia lasterketak gero eta zaletu gehiago ditu. Igande honetan, 20.000 izango dira Behobiatik abiatuko direnak, tartean, herritar ugari. Horietako batzuk, Lasarte-Oria Bai! krosean hartu zuten parte. Hemen dituzue lasterketako emaitzak:

Mikel Otaegi Irastorza 00:34:58  
 Iñaki Gerica Juan 00:35:27  
 Jon Carrayeda 00:35:38  
 Igor Labaka Lizarazu 00:36:14  
 Jon Tapia Lizarraga 00:38:01  
 Jose Mari Seoane Mayoz 00:39:29  
 Juanjo Estevez Martin 00:39:43  
 Joxe Manuel Algorta Mayoz 00:40:08  
 Aritz Holgado Esnaola 00:41:26  
 Tito Izaguirre Godineau 00:41:31  
 Jokin Rezola Mendikute 00:42:06  
 Beñat Lorenzo Olasagasti 00:42:30  
 Harkaitz Iparragirre Altuna 00:42:49  
 Abbat Mayoz Mancisidor 00:43:16  
 Guiller Rueda Etxeberria 00:43:39  
 Juan Carlos Perez Lizarralde 00:43:43

Jose Manuel Iñarra Ferreira 00:44:03  
 Jon Arriaga Lertxundi 00:44:05  
 Iker Muguruza Pikabea 00:44:05  
 Konrad San Millan Cordova 00:44:16  
 Andoni Udabe Astigarraga 00:44:58  
 Juan Mari Agote Goyaran 00:45:05  
 Jon Irazustabarrena Lizarralde 00:45:07  
 F. Javier Rodriguez Cuenca 00:45:41  
 Josu Portu Alzaga 00:45:44  
 Aitor Jauregui Urdampileta 00:45:46  
 Asier Portularume Isasti 00:46:40  
 Andoni Olano Zugasti 00:46:51  
 J. Manuel Martin Diosdado 00:46:52  
 Floren Lantz Bordagarai 00:47:22  
 Gerardo Armendariz Azpiroz 00:47:22  
 Joseba Bengoetxea Mendizabal 00:47:23  
 Alazne Olaizola Iparragirre 00:47:41  
 Gorka Ibarreta Borda 00:47:41  
 Alberto Garcia Conde 00:47:41  
 Ekhi Arrieta Del Pico 00:47:42  
 Xabier Pagola Uranga 00:47:55  
 Imanol Almandoz Odriozola 00:47:55  
 Asier Azpiroz Iztueta 00:47:56  
 Iker Arrillaga Iribar 00:48:00  
 Sergio Montes Guerra 00:48:16

J. Andoni Lizarralde Iraola 00:48:44  
 Ruben Cabaco Encinas 00:48:57  
 Alfonso Vidal Urdanpilleta 00:49:00  
 Iñaki Errekondo Salsamendi 00:49:00  
 Moises Andres Zubiria 00:49:12  
 Iñaki Bengoetxea Zubiria 00:49:25  
 Unai Agirre Otegi 00:50:37  
 Mikel Irastorza Leunda 00:50:54  
 Aritz Olagoi Olazabal 00:51:37  
 Imanol Zaldúa Unanue 00:51:44  
 Iñigo Alkorta Etxeberria 00:51:53  
 Eduardo Jauregui Torrecilla 00:52:04  
 Tomas Imaz Agirre 00:52:26  
 Aitziber Eizagirre Zaldúa 00:52:26  
 Ander Ayuso Casanova 00:52:59  
 Gorka Aizpurua Martinez 00:53:10  
 Aitor Otamendi Lizarazu 00:54:00  
 Lorea Aldabaldetreku 00:56:00  
 Asier Garcia Arrieta 00:56:08  
 Txema Martinez Urkiola 00:56:46  
 Juan Galardi Mendiluce 00:57:04  
 Urko Zurutuza Ortega 00:57:12  
 J. M. Askorreta Erdozia 00:57:58  
 Iñaki Eizagirre Sagardia 00:58:24  
 Javier Varona Arratibel 00:59:00





## Agenda !!

**Azaroak 11 osteguna**  
19:00etan, Ekozinemaldia Sutegin.

**Azaroak 12 ostirala**  
19:00etan, Ekozinemaldia Sutegin.

**Azaroak 13 larunbata**  
19:00etan, "Off-On" ikuskizuna.

**Azaroak 18 osteguna**  
18:00etan, Musikalean kalejira.  
19:00etan, Santa Zeziliaren omenez-  
ko kontzertua Sutegin.

## Goardiako farmaziak

**Azaroak 11, osteguna**  
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

**Azaroak 12, ostirala**  
De Miguel, Nagusia32 Lasarte

**Azaroak 13, larunbata**  
Iturralde, Bordaberri 1 Usurbil  
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

**Azaroak 14, igandea**  
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

**Azaroak 15, astelehena**  
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

**Azaroak 16, asteartea**  
Gil, Nagusia 24 Lasarte

**Azaroak 17, asteazkena**  
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

**Azaroak 18, osteguna**  
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

**Azaroak 19, ostirala**  
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

**Azaroak 20, larunbata**  
Oa, Kontseju Zarra 11 Usurbil  
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

**Azaroak 21, igandea**  
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

**GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ**  
*Chucla farmazia (22:00-09:00),  
Kardaberaz, 48, Hernani (943 551 793)  
\*Usurbilen, soilik eguerrira arte*

## Ekozinemaldia, zer pentsatua ematen duten dokumentalen aterpe

**E**koekologistak Martxak taldeak koordinatzen du Ekozinemaldia izeneko zikloa. Hasiara batean, Donostian baino ez zen egiten baina iaz, Gipuzkoako beste herri batzuetara ere zabaldu zuten Ekozinemaldiaren eskaintza. Honi esker, hainbat dokumental ikus ahal izango ditugu egunotan Sutegin.

Laborantza-ekologikoa, transgenikoak, lurraren jabetza, elikagai-subirano-tasuna, laborantza-industrialaren aurrean nekazarien erresistentzia... Aurtengo Ekozinemaldian ikusiko diren filmetan landuko diren gaiak. Usurbiltzen taldeak antolatu du Ekozinemaldia.



SCOTT LUDLAM, "CLIMATE OF HOPE" DOKUMENTALEKO EGILEA.

**Azaroak 11 osteguna**  
"Coconut Revolution", "Impactos de la forestación en Uruguay", "Niger ibaia". 19:00etan Sutegin, sarrera doan.

**Azaroak 12 ostirala**  
"Tierra bajo corriente", "Climate of hope". 19:00etan Sutegin, sarrera doan.

## Datorren astelehenean, ipuin kontalaria udal liburutegian

**M**iriam Mendoza ipuin kontalaria udal liburutegian izango da datorren astelehenean. 4 urteko haurrei zuzendutako saioa izango da. Euskal ipuin tradizionalak kontatuko ditu baina baita gaur egungo idazle euskaldun zein atzeritarren hainbat ipuin ere. Gogoan izan hitzordua, azaroaren 15ean astelehena, arratsaldeko 18:00etan, udal liburutegian.

Antolatzailea: Usurbilgo Udala.



IRUDIAN, MIRIAM MENDOZA.



**Usurbil**  
**Autoak, S.C.L.**  
Zerbitzu Ofiziala

Zumartegi Poligonoa,  
Aitezarra kalea, 1.  
20170 USURBIL  
Faxa: 943 36 62 92

943 36 10 79



**txirriStra**

KONTSEJUZARRA 13  
943 360 466

pin txoak  
ogitartekoak  
piater konbinatuak

**TABERNA**



Sarrereren salmenta



SERVIKUTXA  
943 00 12 00  
www.kutxa.net

# Andoain Santa Zezilia + antzerkia



**O+Hatz**  
**(euskal musika tresnak)**  
AZAROAK 18, osteguna, 20:00h Ekitaldi aretoan

**II. Andoaingo taldeen kontzertua**  
AZAROAK 19, ostirala, 20:00h Auditorioan

**"Donosti Ereski Abesbatza Mistoa"**  
Azaroak 20, larunbata  
20:00h Ekitaldi aretoan

**"Errenteria musikal orkestra"**  
Azaroak 21, igandea  
12:30h Auditorioan

**La Papa producciones "Rosas Rojas" Antzerkia**  
Azaroak 26, ostirala  
21:30h Auditorioan



ANDOAINGO UDALA Gipuzkoako Foru Aldundia

Informazio gehiago: 943.303.540 [www.andoain.org](http://www.andoain.org)


**txitxarro** erretegiak (lehen IGUARTE sagardotegia zen tokian)  
erretegi berriaren ate-irekitze ekitaldira gonbidatzen zaituzte  
datorren Ostegunean, Azaroak 11, 18:30etan.



txikiardi auzoa · iguarte kalea. 11 · 20100 · usurbil  
T. 943 36 99 64

**txitxarro**  
erretegia

- eguneroko menua
- asteburuko menua
- karta





# Ofizioen Gida



**URDAINTZI**  
eraikuntzak

649 43 54 75 / 76  
943 36 72 64  
urdaintzi@euskalnet.net

· ERAIKUNTZAK · OBRAK  
· BERRITZE LANAK

Andoni Errazkin

**Xukin**  
igeltseritza orokorra

663 08 76 71  
943 24 34 65

Barne eta kanpoko lanak

Josue  
Igeltseritza

Fax: 943 24 34 60  
Atallu pol. atallu, 28  
20170 - USURBIL

606 37 21 05

Igeltseritza orokorra

 **Errazkin S.L.**

igeltseritza orokorra  
943 372 679 eta 649 435 470

kale nagusia 47, behea A

**Jose Aizpurua Unanue**

 teilatuak eta fatxadak

943 69 68 52  
620 80 01 86

Obaba kalea 29, Asteasu



**LATAILLADE**

 **ITURGINTZA**

Gas, berogintza,  
klimatizazioa, instalazioak  
eta mantenimendua

943 363 348 - 609 888 021

 **Enrique Alonso**

**ITURGINTZA**  
**GASA-BEROKUNTZA**

Oro har libratze-lanak  
TB kamerakin hodi eta tximinien azterketa  
**BAIMENDUTAKO INSTALATZAILEA**

659 675 283

**Javier Orbegozo**

**GASA-BEROKUNTZA**

659 602 789

erreka txiki 13, 3.esk

**JOSEBA**  
**ARANGUREN**

**ITURGINTZA**

943 83 00 72  
659 88 39 12



izagirrelektrizitatea@hotmail.com

**izagirre**

Apdo. 37  
943 36 50 95  
609 06 81 11  
943 37 65 87

**Elektrizitatea**  
Goiz Argi etxea nº 37  
Kale Zahar Auzea



**Antonio**  
**URRUZOLA**

**AROSZTEGIA**

Tel/Fax: 943 376 415  
Asteasuain Industrialdea, 3

**BARRENETXE**

Salsamendi Arregi, Imanol

**AROSZTEGIA**

943 362 664

Barren Etxe kalea ZUBIETA



**MARGOAK - PAPERAK**

**FERNANDO**  
**PINTORAK**

ENPAPELAKETAK eta  
PINTURAK OROKORREAN

nagusia, 1 TEL: 943 36 60 19



 **PLAKODUR**

Eskaiola eta Pladurra

943 00 85 44 - 634 45 78 78